

Maite dut

Ander Irureta

Egin, 1994-08-26.

Nik ere maite dut Martin Ugalde. Zergatik ez? Asier Etxeberriak ere maite du, atzokoan bota zizkion lore arantza gabeak entzun ondoren. Lola Valverde, Martxelo Otamendi eta bart gaueko saioko gainontzeko gonbidatuek ere maite dute. Gero eta gutxiago geratzen diren lagun horietako bat delako. Betiko belaunaldia. "Abertzalea, euskalzalea eta kristaua naiz, esan behar dut", zioen atzokoan. Baita frogatu ere. Historiaz hitz egitean hiru egitean hiru ajetibook batu zituen orduerdiko solasaldian. Saioko bigarren zatian, Martxelo Otamendiren galderak Asier Etxeberriarenak baino askoz ere zorrotzagoak izan ziren. Euskal Herriaren historia garaikidearen inguruko galdera jantziak botaz. Gerra garaiko euskal gudariak aipatu zituen birritan atzokoan Ugaldek. Maite dudala esan dut. Herri nortasunaren ezaugarrien artean ejerzitoa aipatzeak belarriko min pixka bat jarri zidan arren. Belaunaldi kontua izango da. Ezin guztiarekin bat etorri.

Ugaldek gure herriaren bake biderako aukera bakartzat elkarrizketa aipatu baldin bazuen atzo, gaurko teleberrin Jacob Cohen izeneko diplomatiko israeldar batek euren Oslon palestindarrekin izandako elkarrizketa prozesua goraiatu zuen. Euskal Herriarekin –Eusko Jaurlaritzarekin, hobeto esanda– dituzten harreman ezin hobeak gogoratu ondoren, ez zuen baztertu eredu berdina Euskal Herrian ezar zitekeeneko aukera. Bideo bitartez egin nahiko ote dituzte elkarrizketak? Edo hegazkin sanitario batean? Gero eta gutxiago ulertzen dut guztia. Baina maite dut Martin Ugalde. Hori bai.